

ZAM

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotzako herri albizkaria • 82. alea. 2023ko uztailea

MAITE LÓPEZ eta JAVI LUENGO

*LABeko garbiketa-sektoreko ordezkari sindikala eta
UGTko Euskadiko garbiketa-sektoreko arduraduna*

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!



www.comerciantes-zorrotza.com



Praktikatu Euskaraz Gurekin!



Euskaraz praktikatu eta bizitzeko hamaika aukera ditugu zuretzat:
**Mintzataldeak / Familia-ekintzak / Txangoak / Tailerrak /
Mintzodromoak / Lehiaketak / Hitzaldiak / Mendi-irteerak /
Asteburu-pasak...**



EMAN IZENA HEMEN:

Zorrotza AEK

Zalbidea, 7 • 94 441 49 20

zorrotza@aek.eus



Herri Mugimenduarekin batera, ilusioz eta seriotasunez lanean jarraitzeko konpromisoa

sarrera



Zorrotzako herri aldizkaria
82. alea, 2023ko uztaila

f @ZorrotzMorrotz
t @zorrotzmorrotz
e zmorrotz@gmail.com

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:
Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez
Zuriñe Vila

Laguntzaileak:
Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:
Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:
Iñigo Ramirez de la Piscina

B Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du.
Bilbao Edukiaren erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.

Joan den maiatzaren 28an, udal eta foru hauteskundeak izan ziren. Udal gobernu berria eratzen den bitartean, Auzo Elkartetik, lanean jarraitzeko konpromisoa helarazi nahi dizuegu, auzoko Herritarren Mugimenduarekin batera gure ibilbide luzearen ezaugarriekin: ilusio, konstantzia eta seriotasunarekin. Eta ez dugu bakarrik egingo, Bilboko Auzo Elkartearen Federazioko kideak baikara hasieratik, eta hori garrantzitsua izango da laguntzak jasotzeko eta Bilbo berri bat eratzeko.

Beste aldetik, aipatzekoa da joan den maiatzean (ohikoa den bezala) Alaz-

neren Memorialela ospatu genuela arrakastaz. Gure aldetik, eskertzen diegu urtez urte gure auzoan kultur ekitaldi zoragarri hau posible egiten duten guztiei.

Bukatzeko, ambulatorioaren aurrean egiten ari garen kontzentrazioak aipatuko ditugu. Lortu beharreko gai garrantzitsuak ditugu aurretik, baina badakigu pazientzia, kemena, irmotasuna, seriotasunarekin, eta noski, zuen laguntzarekin errealitate bihurtzen joango direla. Beraz, animo eta aurrera.

Aupa zuek!! Zorrotza aurrera!!



IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mail bat zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarriz

ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

100 urte

ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

cafe txinbo

Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak


Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

Lápices
LIBURVENDENDA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA

UDAL HAUTESKUNDEAK ZORROTZAN

EAJ irabazle argia, behera egin arren. EH Bildu nabarmen gora: bigarren indarra, PSEk baino bozka bat gehiago eskuratuta



AITOR MARIN

EAJk udal hauteskundeak irabazi ditu berritara Zorrotzan. Garaipen argia, 500 boto inguru galdu arren. Galera ez da makala: duela lau urte lortutako botoetatik ia laurden bat galdu dute jeltzaleek, 1332 bozka eskuratuta.

EH Bilduk 927 bozka lortu zituen pasa den maiatzaren 28an. 150 boto inguru baino gehiago duela lau urte atera zituenekin alderatuta. Gutxi gorabehera, Alderdi Sozialistak galdo dituen berberak. Horri esker, subiranistek bigarren postuan aurreratu dituzte sozialistak, boto bakarreko aldeagatik.

Alderdi Popularra da, EH Bildurekin batera, duela bi urte baino babes handiagoa lortu duen udal ordezkari-tza duen indar bakarra. Igoera txikia hala ere, 50 bozka gehiagokoa. Elkarrekin Podemosek, berriz, babesen ia erdia galdu du, eta 307 boto lortu zituen.

Oso deigarria da abstentzioaren ehuneko handia. Botoa emateko eskubidea zuten pertsonen erdiek baino gehiagok (% 51,3) ez zuten parte hartu hauteskundeetan. Udal hauteskundeetara aurkeztu ziren gainerako indar politikoez ez dute ordezkari-tzarik izan. Nabarmendu behar da Ciudadanosek boto ia guztiak galdu dituela, eta Voxek lau aldiz handitu duela auzoan zuen babesen (duela lau urte 35 bozka baino ez zituen izan).

Zorrotzako balizko udala

Eta nola islatuko lirakeke emaitza horiek gure auzoak balizko udal propioa izango balu? Ba lehenik eta behin, zinegotzi kopuru osoa kontuan hartu beharko genuke: biztanleen arabera, Zorrotzako balizko udalak 13 zinegotzi izango lituzke guztira, honela banatuko lirakekeenak: EAJ izango litzateke lehen indarra, 5 ordezkari-rekin; bigarren eta hirugarren tokian, EH Bilduk eta Alderdi Sozialistak 3na zinegotzi izango lituzkete, hurrenez hurren; azkenik, Alderdi Popularrak eta Elkarrekin Podemosek azken bi ordezkariak banatuko lituzkete.

Bilboko Udala

Hauteskundeek ez dute aldaketa handirik ekarri Bilboko Udalean. Juan Mari Aburtok (EAJ) errepikatu egin du alkatetzan, bere alderdiak bi zinegotzi galdu dituen arren, Hamalau ordezkari zituen EAJk eta hamabi izango ditu legegintzaldi honetan.

EH Bilduk bigarren indarra izatea lortu du sei zinegotzi erdietsita (aurreko legegintzaldian baino bi gehiago). PSEk duela lau urteko bost akte eutsi die, baina hirugarren indarra izango da, EH Bilduren gorakadaren erruz. PPK, berriz, zinegotzi bat gehiago lortu du, hiru izatetik lau izatera pasatuz. Azkenik, Elkarrekin Podemosek bosgarren tokira egin du atzera, hiru zinegotzitik bira jaitsi ondoren.

Alaia Martin eta Amets Arzallusekin bertso-poteoan ikasturtea amaitzeko



IGOR GUTIÉRREZ

Ikasturteari amaiera emateko, bertso-poteoa antolatatu zuen Euskal Txokoak ekainaren 24an. Alaia Martin eta Amets Arzallusen bertso freskoek arratsalde sargoria hobeto pasatzen lagundu zuten eta momentu bereziak utzi zituzten.

Saioa Madness tabernatik abiatu zen, Pan Duro taldearen soinu-probaren ostean (horri tiraka bota zituzten lehen bertsoak). Bigarren gelto-koa, Biritxi taberna. Bertan, bertso batzuk jarri zizkieten billarrean jolasteko itxaron bitartean adi-adi zeuden gazte batzuei. Ondoren, Askabidera zuzendu ziren eta patio andaluziarrean jarraitu zuten emanaldia, borobilean eserita zeuden entzuleak zirikatuz. Azkenik, Fray Juan 10ean bertso-rik hunkigarrienak bota zituzten, biharamunean taberna betiko itxiko zuten Txema eta Soniaren omenez.

Gustura ibili ziren Alaia eta Amets Zorrotzan, eta haren benetako auzo-giroa azpimarratu zuten beraien doinuetan. Gurean, lehen aldia da bi bertsolari aparta hauetaz gozatzeko aukera dugula.

AITOR MARIN

Euskal Txokoak urtero antolatzen duen ipuin lehiaketaren sariak banatu berri dira. Epaimahiak lan handia eta zaila izan du berriro, 130 ipuin jaso baitira guztira.

Alaia Martín eta Amets Arzallusen eskuetatik jaso zuten saria irabazleek, bertsolariak bertso poteoan hasi aurretik.

Mila esker parte hartutako idazle guztiei eta zorionak sarituei. Hona hemen haien izenak:

12 urtetik behera:

- **1. saria:** Aimar Molano Sainz-Rozas.
- **2. saria:** Irati Rubio Leiros.

DBH eta batxillergoko ikasleak:

- **1. saria:** Olatz Mendizabal.
- **2. saria:** Enara Riancho Pinto.





Auzo Elkarteak udal agintaldi berrirako lehenetasunak zehaztu ditu

Zorrotzaganeko jolas-parkea estaltzea da Auzo Elkarteak legegintzaldi berrirako zehaztutako lehenetasunetako bat

IGOR GUTIÉRREZ

Maiatzean, udal hauteskundeen atarian, Auzo Elkarteak asanblada irekia deitu zuen, auzokideekin batera 2023-2027 agintaldirako lehenetasunak eztabaidatu eta finkatzeko. Batzar horretatik eta sare sozialetatik jasotako proposamenekin, txosten bat osatu du elkarteak eta alderdi politikoen eta auzokideen aurrean aurkeztu. Zerrenda luzea dirudien arren, eskaera askok urteak daramatzate zain, baina honako legegintzaldi honetan egikaritu daitezkeela uste dute elkartekideek.

Hasteko, historikoak diren hiru aldarrikapen potolo. FEVEko trenbidea lurperatzea, geltokia mantenduta. Sader-Profersa enpresaren lekualdatzea, hirigunetik kanpo. Eta auzoko industria-ondarea babestu eta nabarmentzea.

Jarraitzeko, berriagoak diren eskakizunak, auzoko parke eta arnasguneei dagokienez. Zorrotzaganeko jolas-parkea estaltzea. Zorroztgoiti plaza (autopista azpikoa) eraberritzea, belaualdiarteko proiektuari jarraipena emanda. Txinbo parkeko txakurgunea handitzea eta komunak jartzea. Zorrotzako kaia oinezkoentzat irekitzea. Eta Kadaguako erriberaren berreskuratze naturala, auzotarren gozamenerako.

Garraioaren atalean, zera proposatzen dute: garraio-txartel bakarra ezartzea, prezioa ibilbidearen arabera izan dadin, ez garraio-bidearen menpekoa (beste auzo elkarte eta

eragilek eskatzen duten moduan). Autobusei dagokienez, bi eskakizun: batetik, Zorrotzatik igarotzen den Kbus lineak gurean geltokia izatea; eta bestetik, Bilbobuseko 28. linea hedatzea, Altamiran bukatu ordez Zorrotzan buka dadin. Eta bidegorriari buruz, berriz, auzotik Alonsotegiraino bide bat zabaltzea.

Irisingarritasunari dagokionez, pendiente dauden bi hobekuntza azpimarragarri: erretirodunen etxera sartzeko igogailua jartzea eta Zorrotzako Lorategia etxaldean irisingarritasun arazoak konpontzea.

Espaloi eta bideek ere aparteko multzo bat osatzen dute: Burtzeñako zubiko espaloia estaltzea; Altamiratik Zazpi Landeraino espaloia jartzea, semaforo eta guzti; Zorrotza-Kastrexana eta Zorroztgotibideko espaloi-tarte traketsak hobetzea; eta Usandizaga Musikaria kalea eraberritzea.

Udal ekipamenduei dagokienez, hona helburuak. Auzo Etxe berria eraikitzea, Zorroztgotibidean (proiektuan jada); kiroldegiko aldagelak handitzea; eta proposamen berri-tzaile bat: aire zabaleko igerilekuak eraikitzea, kiroldegia atxikirik baina trenbidez bestalde.

Bukatzeko, txostenean egunerokoak diren gaiak ere aipatzen dira, hala nola, bizikidetzaren hobetzea, osasun publikoko zerbitzuak sendotzea, indarkeria matxista prebenitu eta salatzea, eta auzoko elkarten jardura soziokulturala babestea.

Alazne Gogoratz Memorialak kalitate handiko ikuskizuna eskaini zuen bosgarrenez



Andoní

CARLOS RODRÍGUEZ

Ekitaldi hau 2017an sortu zen hainbat helbururekin: batetik, Alazne López Etxebarria auzoko dantzariari omenaldia egitea; bestetik, kalitate artistiko handiko dantza ikuskizun bat eskaintzea Zorrotzan; eta beste asmoetako bat zen auzoko talde eta elkarteek zeregin horretan parte har dezaten sustatzea.

Pandemiaren ondorioz 2 urteko parentesiaren ondoren, Memorialak jadanik bere ohiko martxa hartu du eta aurten 5. edizioa bete du. Hala, maiatzaren 27an kiroldegira hurbildu zen jende ugari (500 pertsona inguru) musika- eta dantza-gala handi batez gozatu ahal izan zuen.

Aurten hainbat artista igo ziren eszenatokira; horien artean, Sara Arévalo dantzaria, Ballet Nazionalekoa, Marta Otazu, Joaquín Cortés konpainiakoa, eta Mikel del Valle bilbotarra, beren errepertorioetako piezak interpretatu zituztelarik.

Musikaren atalean, Ana Sagastizabal sopranoa, María Solinís pianista, Oihane Fernández, biolan, eta Urtzi Leginetxe txistularia entzuteko aukera izan genuen. Horrez gain, beste emanaldi batzuez gozatu ahal izan genuen: hala nola Asier Urkiza bertsolari zorrotzara, Nerea González, Iñaki López eta Mikel Sánchez dantzariak, Olaeta balletak, Sara Echevarri, bere eskolarekin, Danza Libre, Dantzerti, María Fernanda dantza-konpainia eta Estudio de Ballet Teresa González.

Une ahaztezinak pasarazi zizkiguten artista guztiak urteko kultur hitzordu garrantzitsu honetara hurbildu gineno. Ekitaldiaren atal artistikoari dagokionez, nabarmentzekoa da bigarren urtez arduradun izan den Mikel del Valle auzoko dantzariak egin zuen lan ona.

Horrez gain, Memorialaren harira, "Laguntasuna" Merkatarien Elkartearen eskutik, antzerki eta musika ikuskizun bana eskaini ziren maiatzean zehar Auzo Etxean

Berrito

EGINGO DUGU.

U23J

—

Kongresurako eta Senaturako
hauteskundeak

ehbildu



Posta
bidezko
botoa

INFO+

☎ 645 655 566
Buenos Aires 2
Bilbo



// Euskara ikasteari oso garrantzitsua deritzot //

HALIMA EL IDRISI ZITI

Jaiotokia: Tetuán. (Maroko)

Noiztik: 2022ko urtarriletik Zorrotzan.

Adina: 29 urte.

Lanbidea: Eskola jantokiko begiralea.

Zazpi urterekin Marokotik Madrilera heldu zen Halima, eta urte eta erdi da gure artean bizi denetik. Auzo txiki eta familiarra denez, oso gustura dago Zorrotzan eta auzoa betiko bere etxea balitz bezala sentitzen du.

TESTUA: NAROA PEÑA

Nolatan eta zergatik etorri zinen?

2000. urtean heldu nintzen Escorialera (Madril), nire guraso eta anai-arrebekin. Han bost urte inguru bizi eta gero, Granadara joan ginen, eta bertan sei urte eman genituen. Ondoren, nire bikotekidearekin, Bilbora etorri ginen bizitzera (Errekalde auzora), eta joan den urtetik Zorrotzan bizi gara.

Gogorra egin zitzaizun lan eta bizi ohituretara moldatzea?

Zazpi urterekin etorri nintzen Madrilera, eta eskolako gelako taldean sartzeko zailtasunak izan nituen, zeren, lehen ez baitzitzaion garrantzirik ematen ikasleen harrerari. Gainera, ez dut gezurtatzen nahiko garai zaila izan zela niretzat. Aldiz, Zorrotza auzo txikia da, familiarra, eta bertan gehiago estimatu dut pertsonen arteko lotura. Liluratzen nauen zerbait da hau.

Oso ezberdina zen jatorriko bizimodua auzokoarekin alderatuta?

Egia esan, ezer gutxi esan dezaket nire jatorrizko herrialdeaz, oso txikia nintzelako etorri nintzenean. Baina, Espainiar Estatuko autonomia-erkidego batzuetan bizi ostean, esan

dezaket alde handiak daudela, adibidez ohiturak alderatuta.

Nolakoa da zure eguneroko bizimodua?

Goizetan euskaltegira joaten naiz eta eguerdian lanera. Alaba eskolatik irteandakoan, kirola egitera joaten gara elkarrekin, etab. Gainera, boluntario gisa ere lan egiten dut hainbat elkarterekin, haur eta gazteei zuzendutakoak.

Zeinetan eta zer egiten?

Ba, adibidez, Errekaldeko meskitan dagoen batean. Bere misioa edo leloa “Komunitatean bizitzea” da. Jarduera nabarmenen artean, topaketak eta hitzaldiak antolatzen ditu, beste elkarte eta Bilboko auzoetako erakunde askorekin batera. Orain dela gutxi, ate irekiak antolatu genituen: elkar ezagutzea eta auzoarekin eta gizartearekin komunikatzea izan da helburua.

ONDA Euskadi elkartearen ere lan egiten dut. Elkarte honen helburua, kultur elkartrukerako eta errespeturako gune bat sortzea da, gizarte anitza eta inklusiboa eratzeko. Bertan, prestakuntza-jardunaldiak eta astean edo hilean behin egiten diren bilerak antolatzen

ditugu, parte-hartzaile guztiei gida bat emateko: Nola izan produktiboak, parte-hartzai-leak, eta beste edozein erakunderekin edo euskal gizartearen alde lan egin nahi duten pertsonekin loturak garatzeko, adibidez.

Nire ustez, oso interesgarria eta aberasgarria da gure auzoan eta gure gizartearen dauden kultura, erlijio eta elkarteak ezagutzea. Horri esker, aurrera egin dezakegu eta aniztasuna onartu, eta, batez ere, aurreiritzi txarrekin amaitu.

Euskaltegira zoazela aipatu duzu. Zelan moldatzen zara euskaraz?

Iaz hasi nintzen euskara ikasten, eta, egia esan, apur bat galduta nengoen hasieran. Ez da hizkuntza batere erraza, baina, pixkanaka-pixkanaka animatzen ari naiz gehiago. Hezitzailea naiz, eta magisteritza ikasten ari naiz, eta hori izan zen euskara ikastera gehien animatu ninduen. Etorkizunean gustatuko litzaidake horretan lan egin ahal izatea, eta horretarako euskara maila altua izatea eskatzen didate. Baina ez horregatik bakarrik, nire alabarengatik ere, jakina, eskolako etxeko-lanetan laguntza eman ahal izateko. Gainera, uste dut oso garrantzitsua dela euskara ikastea: gizarte baten hizkuntza kulturaren parte oso garrantzitsua da eta gutxienez ezagutu egin behar dela uste dut.

Jatorrizko herrialdetik zerbait duzu faltan?

Ez dut jatorrizko herrialdeko ezer sumatzen faltan... Esan nezakeen bakarra, nire izekoak. Baina Granada bai sumatzen dut faltan: une ikusgarriak bizi izan baitituz bertan familia eta nire lagunekin, Albaicín eta Granada begira-tokitik paseatzea...



“ **Zorrotzako jendea oso apal eta xarmanta da. Auzo txiki eta familiarra da, eta hori oso gustuko dut** ”

Zer da Zorrotzan gehien gustatzen zaizuna?

Auzo txiki eta familiarra dela. Jendea nahiko apal eta xarmanta dela bereziki.

Bukatzeko, zure herrira berriro bizitzera bueltatzeko asmoa izan duzu?

Ez dut nire jatorrizko herrialdera itzultzeko asmorik. Ia bizitza osoa daramat kanpoan... Gainera, gaur egun Zorrotza nire etxea da!

Jai-Alai
kafetegia

Albaro estrata, 12
94 490 12 59

ESKAINITZA
PROGRESIBOETAN
ARMAZOIA +
KRISTALAK GOI-GAMAKOAK
265€

Sustapena indarrean + 4,00 eserako eta -2,00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18

ibarretaluxury
O P T I C A

RISKO
Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86



BIGARREN ESKUKO MERKATUA

Kontsumo jasangarriago baten aukera, auzoan ere bai

Auzokan egindako proposamen bati esker, martxoan Zorrotzako Bigarren Eskuko Merkatua martxan jarri zen. Hasiera batean nola joango zen eta auzokideen erantzuna nolakoa izango zen ezagutu gabe, ideia polit hau aurrera eraman zuten.

TESTUA: AINARA GARCÍA | ARGAZKIA: IGOR GUTIÉRREZ

Ekimen honen bultzaitzaileen burutape-na hilean behin, hileko azken larunbatean, 11:00etataik 13:00etara, egitea zen, hori beti egutegiaren eta jaiegunen arabera aldatzeko aukerarekin. Zorionez, orain arte iragarritako lau deialdiak bete dira, ekainekoa azkena izanik eta Zorrotza Eguneko agitarauekin

bat eginda. Azken honetan, azoka parkean zegoen giroa eta eguraldi onak lagunduta postu ugari kokatu ziren eta ikusmin eta erosle nahikotxo igaro ziren bertatik.

Hasierako merkatuak Auzoka gunearen barruko aretoan hasi baziren ere, azkenak frontoiaren aurrealdean estalitako gunean kokatzeko aukera izan dute ekintza honi agerikotasuna emanaz.

Hilabeteak igaro ahala parte hartzea gora doala sumatzen da. Gehien ikusten dena arropa bada ere, denetarik topatu daiteke, besteak beste jostailuak, liburuak, komikiak, mineralak, bitxiak, musika formatu ezberdinetan...

Parte hartzeko baldintza bakarra, prezio merkea eskaintzea da, izan ere, helburu ekonomiko nagusi duten edota eskuraezineko proposamenak ez dira onartzen. Bestaldetik, beharrezko azpiegiturak (mahaiak, esekitoiak...) Auzokaren eskutik ipintzen dira.



Ekintza honen helburu nagusia, apurka-aùrka herritarrek funtionamendu honetara ohitzea eta Zorrotza bigarren eskuko merkatutako erreferentzia- gune bihurtzea da. Ez da helburu makala. Gaur egun, kontsumo jasangarria lortzeko bigarren eskuko merkatuak aukera bikainak dira eta gorakako joera argia dago. Bilbon bertan gero eta gehiago topa ditzakegu, hala nola, Zorrotzaurreko Open Your Ganbara edota Vintage Bilbao.

Merke erosteko aukera izateaz aparte, bigarren eskuko merkatuek garapen jasangarria bermatzen dute, ekoizkinen bizitza erabilgarria luzatuz eta ekoizkin berrien fabrikazioa eragotziz. Gizarteak ingurugiroarekiko daukan konpromisoa bultzatu behar da, eta auzoan hauxe da aukera bikaina.

Gehien ikusten dena arropa bada ere, denetarik topa daiteke: jostailuak, liburuak, komikiak, mineralak, bitxiak, musika...

Informazio gehiago lortzeko eta izena emateko, Auzokarekin kontaktuan jarri behar da, bai whatsappez (640171872), Emailez (info@auzoka.eus), bai zuzenean (frontoia- ren atzealdean, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 21:00etara).



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfn. 94 441 61 46



Taramona


ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

MAITE LÓPEZ eta JAVI LUENGO

LABeko garbiketa-sektoreko ordezkari sindikala eta
UGTko Euskadiko garbiketa-sektoreko arduraduna

// Garbitzaileen %30ek baino ez du lanaldi osoa egiten //



Maite Lopezek 23 urte daramatza Euskalduna jauregian garbitzaile lanean. Gainera, duela 12 urtetik LAB sindikatuko ordezkaria da. Javi Luengok UGTko Euskadiko garbiketa sektoreko arduraduna da duela 7 urtetik. Biek ondo ezagutzen dute hiru hilabete baino gehiago greban diharduten Osakidetzako garbitzaileen egoera. Beraiekin hitz egin dugu egoera honi buruz, baita oso prekarizatua eta feminizatua den garbiketa sektoreari buruz oro har ere, gehiago jakiteko asmoz. TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MARIN

Garbiketaren lan-sektoreak prekarizatua izatearen ospea du. Hala da?

Javi: Bai. Zoritarrez, prekarizatua da, baita oso feminizatua ere. Soldata txikiak izateaz gain, sektorea oso prekarizatuta dago langileen lanaldiengatik ere. Osakidetzan edo hezkuntzan izan ezik, ez da ohikoena langileek lanaldi osoan lan egitea. Oro har, partzialtasuna lan guztien % 70 ingurukoa izango da. Eta feminizazioaz ari bagara, sektorean lan egiten duten pertsonen % 90 inguru emakumeak dira.

Hala ere, pandemian zehar funtsezko izendatutako lan horietako bat izan zineten. Aldaketarik sumatu al duzue ordutik?

Maita: Ba inolako hobekuntzarik ez. Lehen bezala edo okerrago gaude, eta momentuko "funtsezkotasan" hori ez da ezertan islatu.

Javi: Ziur gogoratuko duzula Ertzaintza Gurutzetako ospitaleko garbitzaileak jipoitzen... Txalo zaparradatik jasotzetik, orain Ertzaintzaren borrakadak jasotzera pasatu gara... "Antes txalos, ahora palos" erdarazko leloa erabili ohi dugu kontzentrazioetan.

Eremu publikoko garbiketa puri-purian dago batez ere, Osakidetzako lan gatazkagatik. Zer gertatzen da zehazki? Zein dira langileen eskaerak?

Maita: Kolektibo honek bost urte baino gehiago daramatza hitzarmenik gabe, eta enprekin bilera asko egin diren arren, ez dago aurrerapausorik eta negoziazioa blokeatuta dago. Enpresak eta Osakidetzak homologazio-printzipioa urratzen ari dira, uko egin baitote Osakidetzako langileei ezarritako gaiak egokitzeari eta ezartzeari. Enpresek diote Osakidetzak eman behar duela dirua, eta Osakidetzak, berriz, entzungor egiten du, eta enpresek konpondu beharreko arazoa dela dio.

Javi: Homologazioaren printzipioa 2009an lortu zen, lankideen borrokari esker, baina ez da ezarri. Eta gatazka gehien sortzen ari dena karrera profesionala da. Dagoeneko lortuta dauzkagun kontzeptu ekonomiko batzuk dira, eta hori ezartzea eskatzen ari gara. Homologazioa ezartzeko behar den kopuru ekonomikoa handia omen da, eta oinarri juridikorik ez dagoelako aitzakia jarri dute... Ez dugu ulertzen pandemia bat igaro eta prekaritate handiko egoera jasan ondoren nola ukatzen zaien dagokiena kobratzea langile hauei.

“Soldata txikiez gain, sektorea oso prekarizatuta dago langileen lanaldiengatik. Osakidetzan edo hezkuntzan izan ezik, ohikoa da lanaldi partziala izatea

Eta zuen ustez, norena da erantzukizuna Osakidetzako garbitzaileen kasu konkretu honetan?

Javi: Nire ustez, errudun nagusia Eusko Jaurlaritza da, zalantzarik gabe. Lehenik eta behin, sektore horiek guztiak pribatizatzea ahalbidetu du. Orain, badirudi ez dutela zuzen ikusten kontratuko langileek Osakidetzako langile propioek bezala kobratzea. Eta horren erantzukizuna norena da, ba? Osakidetzak ez du gatazkan sartu nahi, eta eskuak garbitzen saiatzen da. Baina, egia esan, azpikontratarekin dauden gatazketan, erakunde publikoak akordioa lortzearen alde egiten ez badu, enpresek ez dute inoiz ezer adostuko.

Maita: Sindikatuek egoera desblokeatu nahian urteak eman dituzte, Osakidetzarengandik inolako erantzunik jaso gabe. Eta nik neure buruari galdetzen diot: zergatik inplikatzan da Eusko Jaurlaritza sektore maskulinizatuetakoa gatazketan (Bizkaiko metalaren kasuan, adibidez), baina lan-gatazkaren protagonistak emakumeak garenean, ez dute ezer jakin nahi?

Langileek ia hiru hilabete daramatzate greban. Nola bizi dute egoera hori?

Maita: Langileak oso nekatuta daude. Dagoeneko hiru hilabete dira diru-sarrerarik gabe, ziurgabetasunez, inolako aurrerapenik ikusi gabe...

Javi: 2017. urtea amaitu zenetik hitzarmena iraungita dago, eta Osakidetzak ez du sindikatuarekin eseri nahi izan denbora honetan guztian. Ez da aurreikusten hau laster amaitzeko itxaropenik, eta egunerokoa oso gogorra da baldintza horietan. Oso tristea iruditzen zait, Eusko Jaurlaritza, Osakidetzak eta haren arduradun nagusia, Gotzone Sagarduy, onartzen ari direna.



Unión General de Trabajadores

**“Eusko Jauriaritza
Osakidetzan garbiketa
pribatizatu izanaren
arduraduna da, eta orain ez
du uzten ohiko negoziazioan
aurrera egiten**



Osasun zentroak, ospitaleak,... Garbiketa sakona behar duten lekuez ari gara. Grebako eskubidea errespetatzen ari da?

Javi: Gutxieneko zerbitzuak gehiegizkoak izaten ari dira, eta administrazioarekiko auzi baten bidez errekurritu ditugu. Adibidez, asteburuetan lan egiten duten lankideek ezin dute grebarik egin, ezarri den gutxieneko zerbitzua delako. Astegunetan, asteburuetan normalean dagoen beste langile egotera behartu dute. Gutxieneko zerbitzuak % 60 inguru edo gehiagokoak dira.

Eraginkorra izan daiteke greba gutxieneko zerbitzu horiekin? Eta nolako eragina izaten ari da greba hau herritarrentzat? Jendeak nabaritu du gatazka hori?

Maite: Gurutzetako ospitalearen aurretik pasatzen den edonor, propaganda ikusita soilik, gertatzen denaz konturatu daiteke. Ospitaletik irtetzen diren erabiltzaile asko protestetara hurbiltzen dira babesa ematera, animoak ematera... Hori ere eskertu nahi dugu.

Javi: Auzoetako osasun zentroetan ez da ia nabaritzen. Ospitaleetan gehiago nabaritzen da, eta Gurutzetan dago fokalizatuen. Niri, erabiltzaile gisa, lotsa ematen dit egoera hau onartzeak. Osakidetzako arduraduneri ez zaizkie axola, antza, ez langileak, ez erabiltzaileak, ez beste inor. Gurutzeta bezalako ospitale publiko bat pegatinaz beteta egotea, lurrean maskarak botata topatzea, benetan lotsagarria iruditzen zait. Are gehiago egoera

hau berehala konpon litekeela jakinda, baldin eta borondate minimo bat balego.

Bestalde, gatazkak komunikabideetan duen eraginari dagokionez, zorritzarez, beitarik ez badago, ez du saltzen. Gurutzetako ospitaleko hallean, protesta erabat bakesua egin ostean, Ertzaintza justifikaziorik gabe gogor oldartu zenean baino ez dute interesa agertu. Horretaz aparte, ia ez zaio jarraipenik egin gatazkari. Kazetari batzuek deitu didate galdetzeko ea zerbait antolatuko genuen poliziarekin liskarretan amaitzeko asmoz... Begiratu, guk ez dugu borrarik eta ez dugu inor jo nahi; ez dugu polizia gure kontra kolpeka aritzea nahi, baizik eta langileei dagokiena eskatu. Zentzu horretan, komunikabideengandik jaso dugun jokaera ez da batere ona izan.

Zer urrats egingo dituzue etorkizunean? Zer espero duzue gertatzea?

Javi: Ba espero, ezer gutxi, egia esan. Gatazkak bere horretan dirau, eta ez dirudi laster amaituko denik. Gure aldetik, edozer negoziatzeko prest gaude, baina gurekin eseri behar den solaskidea, kasu honetan Osakidetza, ez dago prest. Ez dirudi hemendik eta greba amaituko den ekainaren 30era bitarte aurrepausorik egongo denik.

Eta ekainaren 30etik aurrera, zer?

Javi: Ez dakigu. Langileek eta sindikatuek adostu behar dute. Jendea oso erreta dago. Oporraldiak datoz, eta jendeak deskonektatu



langile abertzaleen batzordeak

“ Soldata-alde handiak daude sektore bereko hitzarmenen artean, praktikan lan bera egiten duten bi langilek soldatan alde handiak izan ditzakete.

egin behar du... Agian atzerapausoa emateko unea da, ondoren bultzada hartzeko asmoz... Argi daukadana zera da: greba helburu bat lortzeko tresna bat da, ez helburu bat berez.

Asko hitz egin dugu Osakidetzako gatazkaz, baina eremu pribatuaz zer kontatu ahal diguzue? Zeintzuk dira sektorearen baldintzak eremu pribatuan?

Javi: Esparru pribatuan, enpresek, estamentu publikoen onespenezekin, gol bat sartu ziguten langileoi eta sindikatuei bere garaian. Banandu eta irabaziko duzu. Euskadin hainbat hitzarmen deszentralizatuta baditugu: Osakidetza, Hezkuntza, Eusko Jaurlaritzza, Aldundia edo bulegoak eta lokalak. Beste leku batzuetan bakarra dute, eta gero zenbait plus aplikatzen zaizkio. Kasu horretan, gelditzen

bada, guztia gelditzen da. Hemen, deszentralizatuta, eragiteko gaitasuna galdu da.

Maitte: Hitzarmenei dagokienez, alde handia dago. Adibidez, bulegoen eta lokalen hitzarmen probintzialaren pean dauden langileen baldintzak askoz okerragoak dira. 2022an Bizkaiko bulegoak eta lokalak garbitzeko hitzarmen probintziala sinatu zen, 2024ko urtariraren 1etik aurrera lanaldi osoko garbitzaile batek urtean 18 mila euro kobratu ditzan. Adibidez, Osakidetzan dauden lankide batzuek 23 mila baino gehiago kobratzen dute. Alde handia dago. Publikoaren eta pribatuaren arteko aldea izugarria da. Berriro gogorazten dut hasieran aipatutakoa: sektore honek, aurretik asko jada bazuen, baina gainera gero eta lan partzial gehiago dauka. Beraz, langile asko ez dira soldata horretara ere iristen.

Regalos Omega
oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com

SAZ
OKINDEGIAK

Zorrotzako labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO



BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC

LASTER

Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOA
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013



Streaming plataformak ere euskaraz!

Mundu osoan zerbitzuak eskaintzen duten streaming plataformak ere euskararen aldeko apostua egiten hasi dira. Horien artean, azkena, Spotify musika plataforma izan da. Netflix-ek, aldiz, 2022an euskaratu zituen edukiak.

NETFLIX

2022an onartutako ikus-entzunezko lege berriak streaming plataformak behartu zituen, hizkuntza ofizialaz gain, zeinbait izenburu hizkuntza koofizialetan ere eskaintzen. Hori dela eta, Netflix-ek eduki asko euskaratu zituen. Honela, 70 izenburu baino gehiago aurkitu ditzakegu euskaraz, eta urtero izenburu berri gehiago gehitzen joango da plataforma ezaguna.

Spotify


Suediako enpresak iragarri duenez, lehendik erabilgarri zituen 63 hizkuntzei beste 11 gehitu dizkie; hala nola, euskara eta gallegoa. Hizkuntza berri horiei esker, erabiltzaileak "esperientzia pertsonalizatuagoa" izatea lortu nahi dute. Plataforma euskaraz izateko, mugikorren ezarpenak euskaraz jarri beharko ditu erabiltzaileak.



Egarría

Josu Penades.

Alberdania. 2023. 126 orrialde.




Ganaduaren marruek iraztari dute Galo goizaldean. Etxe-aurrean piztu den suteak aztoratu du ganadua. Sutean aitxe hil dela ikusi du Galok. Jakin gura du sutearena istripua izan den ala hil egin duten aitxe. Hil egin badute, jakin gura du zorretan zegoelako hil duten ala mendekua hartu behar duen.

Egunetan dago sargori. Sei urteko zela hil zitzaion ama. Aitxek bestelako ardurak hartzen zituen, apustuak-eta tarteko. Orain, mendeku-egarría piztu zaio. Beharbada mendekua hartu beharko die aitxeren hiltzaileei, halakorik egon bada. Baina sumintzen duen mendekua aitxeri hartu gurako ziokeena da. Gaur ere hego haizea dabil. Gero eta gogorragoa da sikatea. Ezer egin gabe ateratzen da izerdia. Galok Mikela darabil gogoan.



TATXERS "Tatxers"

(TAE Records - Flexidiscos) 2023



Iruñea aldera joko dugu Euskal Herriko eszenan zeresan handia ematen ari den Tatxers hirukotearen azkenengo lana ezagutarazteko asmoz. Taldearen izen bera jarri diote emaitza berri honi, baina ez da beraien lehenengo erreferentzia. Aurretik iraupen luzeko bat eta 4 abestiz osaturiko EPa argitaratu dituzte. Horrez gain, bilduma ezberdinetan egindako elkarlanak ere aurkituko ditugu.

11 abestiz osaturiko plastikoa Berako Atala estudioetan grabatu eta nahastu dute Iñigo Irazoki Willis Drummond taldeko teknikariaren eskutik. Masterizazioa, aldiz, New Jersey-eko G&J Audio estudioan egin dute, non teknikarietako bat Les Paul kitarra mitikoen sortzailearen semea dugun.

Kitarra garbiak, kasik distortsiorik gabekoak, eta presentzia handiko oinarri eritmikoa dira nafartarren identitatea. Zarama eta Hertzainak gustuko badituzu, horien oinordeak direla esan dezakegu. Ingalaterrako punk eszenaren kutsua ere datorkigu burura, batez ere The Clash taldearen estilo ezberdinen nahasketa. Nahiz eta erreferentziak presente dauden, freskotasuna eta orijinaltasunari eustea lortu dute.



AGENDA

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (urria-azaroa) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi irailaren 15a baino lehen.



PINTXOTAN

Ahuntz gaztiz beteriko kuitxoa



Zailtasun maila: Ertaina.
Prezioa: 1,70 euro.

Osagaiak: Arto irina, ura, gazta eta txistorra.

Lehenik eta behin, kuitxoa moztu, eta tomate eta gaztiz betetzen dugu. Gero, zartaginean olio bota, eta sutan ipiniko dugu. Bitartean, kuitxoa irin eta arrautzatan pasatu, eta albardatzen dugu. Erreserbatuta geneukan olio bero-beroa botatzen dugu kuitxoa, eta frijitua daukagunean, plater batean utzi, eta piperra frijitzen dugu. Azkenik, platerean aurkezteko, ogi zatia hartu, eta ganean tomate xerra, kuitxoa eta piper berdea ipini.

EL 10 DE FRAY JUAN

Fray Juan 10
Tel. 94 474 0163.

Dagoeneko El 10 de Fray Juan tabernak betiko itxi du.

Txema eta Sonia, eskerrik asko auzoa eta euskararen alde egindako guztiagatik!
Zorte on eta ondo ibili!



El 10 de Fray Juan

Pintxo askotarikoak, hamburgeresak eta sandwichak
Bazkariak eta aforiak (erreserbatu behar da)
Aroa onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao



Zure zain gaituzu
Zalbidea estratoko 13an.

CROSS TRAINING
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
TXIKICROSS

Deitu 623 106 531 telefonora



Tel. 94 441 62 75



Arraitz

MANU COBO

Arraitz mendia hiru gailurrek osatzen dabe. Horien artean garaiena I kota da (361 m). Goi-tentsioko linea batek erdiguneko gailurretik (352 m) bereizten dau; iparraldeko kotan, berriz, Arraizeko gotorlekuaren edo gazteluaren hondakinen ondoan, Iturrigorri (345 m) izeneko erpin geodesikoa dau. Iturrigorri Bilboko auzoa da, eta ez dago gailur horietako baten izenari. Gailur horrek Zorrotzako Nerbioi eta Kadagua ibaiek bat egiten daben lekurantz adarketa bat proiektatzen dau, baie lehenago Kobeta menditik igo behar dogu.

XIX. mendearen amaieran, hirugarren eta azken karlistaldia egin zan; Bilbo hurribiduagaz eta itsasadarraren inguruko herriekaz zerikusirik ez eban borroka. Itsasadarra inguratzen daben mendien goiko aldeetan, bi aldeetatik Abran itxasoratu arte, gotorlekuak eraiki edo berre-raiki ziran. Begiratokiaren eskuinaldean, Arraitz mendiaren aztarnak dagoz. Karlisten bandoak eraiki eban 1875 urtean, tronera, haitzetan egindako foso bat eta Kastrexana aldera zubi altxagarri bat dabezala. Ametik beste kokaleku gotortu batzuk ikus zitezkeen, hala nola Kobetas-Altamiratik gertu zeudenak, aginte

liberalaren pean, eta Arnotegikoa, karlisten bandoak eraikia. Itsasadarraren beste aldean, Banderas eta San Bernabe mendietako gotorlekuak egozan.

Hona igotzeko, eta aurreko ataletan ikusitakoa hankak berotzeko ohiture artute, auzotik Kastrexana ganera igoko gara, zazpilandetatik. Gora egingo dogu errepidetik beheko aldean dagoen baso bidetik, sueps lantegiko aztarnak igaro eta gero, ezkerretatik. Altamirara heldu eta Kobetase-ra igoko gara, udaltzaingoan txakurdegia igarota, apur bet aurrera eta antzinako arrobotik gora, markatutako bidetik. Arrobi zaharra gainditute, Arraitz mendi aurrez aurre topatuko dogu. Itzultzeko Arraitz herrira joan geinke, zeharkatu eta ateratzean eskumako bidea hartuko dogu jeisteko, Artigas paretik jeitsiko gara eta. Motza eta kiratsatxua dekogu itzulia, baie oso ona konturatzeko sartu eta sartzen jarraitzen doskuen kaka guztia, geure alboan. Pista itzi baino lehen eskumean ikusiko dogu ur partzuergoko sifoiko dorretxoa, Ordunte-tik etortzen dan ubidearena. Pizka bat igo eta ubide gainetik auzora helduko gara, erreskailu albotik igarota bere.... Begiratu, eta aurrera jarraituz barrero topako dogu ubidea, Kastrexana ganera itzuliz.

TXOKO FEMINISTA



Egun hauetan genero indarkeriaren izen-dapenari buruzko problematika sortu da berriro, familia barruko indarkeria terminoaren erabileraren aurrean. *Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género* genero indarkeria definitzerakoan, honako ezaugarriak dituela dio: emakume eta gizonen arteko desberdintasuna eta botere erlazioetan oinarritutakoa eta emakume batek pairatutakoa eta gizon

batek eragindakoa dela (bion artean, erlazio sentimentala dagoelarik edo egon delarik). Familia barneko indarkeria, aldiz, familia-ko edozein kideren aurkakoa da (eta edozein kidek egindakoa), hainbat arrazoirengatik. Adituek ohartarazi dutenez, hainbat indarkeria-mota barne hartzen dituen termino bat erabiltzeak biktimak ikusezin bihurtzen ditu, eta, gainera, indarkeriaren kausa indibidualetan jartzen du arreta berriro, alde batera utzita egiturazko eta generoko kausak.

IRATZE PÉREZ

SALAKETA ARGAZKIA

Igogailuari euskara "ahaztu" zaio

Egunotan, makinak hain dira argiak, hitz ere egiten dute! Hizkuntzak dakizkite. Eta gure herri honetan, jakina da bi hizkuntza ofizial ditugula. Horrela, ondo programatutako makinek bi hizkuntza ofizialak dakizkite. Hala gertatzen zen auzoaren behealdea eta Zazpi Landa lotzen dituen A8 autobide gaineko pasabideko igogailuan. Baina hilabete batzuetatik hona (matxura ugarietako baten ondoren, suposatzen dugu) norbaitek igogailuak elebiduna izateari uztea erabaki zuen, eta bitxia bada ere, euskara ahaztu egin zaio, atek noiz edo ireki, eta gora edo behera doan adierazteko... Espero dezagun hurrengo konponketan, edo azterketan, norbaitek gogoraraztea euskaraz ere hitz egin behar duela.



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

Egin dugu eta berriro ere egingo dugu!

Maiatzaren 28ko hauteskundeetan, Bilboko Udalerako hautagai izan nintzen EH Bilduren zerrendan. Kanpotik soilik ikusten nituen gauzak barrutik ikusteko aukera eman zidan horrek: bilerak, elkarrizketak, eztabaidak, mitinak, eta abarrak antolatzeke izugarritzko lana. Askotan kanpainan baino ez dela egiten uste badugu ere, ez da horrela, baina, egia da hauteskundeak gerturatu ahala, hau areagotzen dela.

María del Rio buru zuen zerrendan joateko erronka onartu nuen, arrazoi simple batengatik: auzoan ditugun beharrak udalera hurbildu ahal izatea eta zorrotzarren bizi-baldintzak hobetzeko proposamenak egitea. Izan ere, auzoko bizilaguna naiz, eta EH Bilduren politikak Zorrotzak benetan behar dituenak direlakoan nago.

Hauteskundeek Zorrotzan utzitako emaitzen azterketa txiki bat egin nahiko nuke:

- EH Bildu izan da bigarren indarra.
- Ia 1000 boto lortu ditugu.
- Hauek dira EH Bilduren historiako emaitzarik onenak.
- Aburtorekiko aldea 400 boto eskasera murriztu dugu.



RAÚL PERERA

“ **Maiatzaren 28ko hauteskundeetan, hautagai izan nintzen EH Bilduren zerrendan. Orain, hauteskundeak pasata, berretsi nahi dut nire konpromiso hori. Auzoko kolektiboekin elkarlanean, Zorrotzan bizi garen pertsonon bizi-baldintzak hobetu daitezten lanean jarraituko dugu** ”

- Ezinezkoa zirudiena, hegemonia horrekin haustea alegia, gero eta hurbilago dago.
- Ezkerreko indarrok eskuinak baino bozka gehiago batu ditugu. Auzo gorria gara.
- EH Bilduk udal aurrerakoi bat gidatu lezake, Zorrotza udalerrin independentea balitz.

Hausnarketa horiek erakusten digute ziklo politikoaren aldaketatik gero eta gertuago gaudela, eta Zorrotzako herritarrak aldaketak eska-

tzen ari direla gobernatzeko moduetan, orain arteko formula zaharkitu eta agortuekin amaitzeko.

Denok dakigu gure auzoa gaur egungo udal gobernu bano ezkertiarra, ekologistagoa, feministagoa eta euskaldunago dela. Eta horregatik nire konpromisoa berretsi nahi dut. Hauteskundeak igaro dira, baina lanean jarraitu behar da, eta auzoko kolektiboekin elkarlanean jarraituko dut, Zorrotzan bizi garen pertsonon bizi-baldintzak hobetu daitezten lau urte hauetan.

Baina ezin dugu ahaztu uztailaren 23an berretsi ahal izango dugula EH Bilduk ezkerreko politikak eramatea Madrilera eta Euskal Herria nazio gisa kontuan hartzea. Eskuin muturreko gobernu batek ekarriko lukeen inboluzioa gelditzeko aukera bakarra gara, eta izango gara. EH Bildu erabakigarria izango da, beste behin ere.

Oskar Matutek ozen eta argi esan zuen auzoan: “*Herri honek eskuina eta faxismoa hauteskontzietan geldituko ditu berriro. Autoritarismoa geldiarazteko bermea gara. Faxismoari ezta urik ere. Eta egarri bada, polboroiak!*”

Ni prest nago horretarako; zuekin batera. Berriro egingo dugu!



Titanic

Azken egunotako albiste txundigarrietako bat da: igande goizetik daramate Titan urpekariaren bila. Pasa den mendean hondoratutako Titanic ikustera abiatu zen espedizioa eta, patuaren ankerra, transatlantikoari gertatutako gauza bera gertatu zaie. Zalaparta eragin du, hedabideek arretaz jarraitu dute bilaketa eta sare sozialetan mezu hunkigarriak idatzi ditu jendeak. Memeak ere ez dira falta izan. Izan da iritzi publikoaren hipokresia kritikatu duenik, fokua urpekariko dirudunengan jarri izana eta ez aste berean Mediterraneoan itotako ehunka lagunengan. Auziak aparteko interesik ez duela pentsa daiteke, moralari buruzko bost ogerleko eztabaidaz harago. Finean, asmo fribolo batek bultzatuta galdutako aberaskiloez ari gara. Honek guztiak badu, ordea, irakurketa sakonago eta nahi bada, interesgarriago bat. Lerrook idazten dituenarentzat, jakina.

Izan ere, albistek berak Cortazar edo Borgesekin kontakizun baten antza du. Ipuin onen izaera paradoxikoa antzematen zaio. Titanicen destinu bera izan du haren urpeko arrastoen bila zihoanak. Titanic, Belfasten eraiki eta Southamptonetik New Yorkera bidean Atlantikoko uretan hondoratu zen transatlantikoa. Cameronen filmak ia-ia mitoaren maila



ASIER URKIZA

“Zalaparta eragin du Titanic ikustera abiatu zen espedizioak. Hedabideek arretaz jarraitu dute bilaketa eta sare sozialetan mezu hunkigarriak idatzi ditu jendeak. Memeak ere ez dira falta izan. Izan da iritzi publikoaren hipokresia kritikatu duenik, fokua urpekariko dirudunengan jarri izana eta ez aste berean Mediterraneoan itotako ehunka lagunengan.

eman zion, punpa handiko bidaiariak eta azken unera arte jotzen jarraitu zuen orkestra. Eta, nola ez, betirako maitasuna, burgesia mendebaldarraren amets hezea. Ametsak amets, tupustean 1912. urtetik 2023ra egin dugu salto eta honek remake kutarean traza hartu du. Ez zuen bada aspaldi esan Marxeek, historia bi aldiz errepikatzen zela, tragedia moduan lehenik, fartsa legez gero. I. Mundu Gerraren aurreko burgesia loriatsu, kultura eta fineziaz beterikoaren

partez, horra hor milioidun single batzuk, aurrerapen teknologikoari esker aberastutako putre zitalak -Titanicekoak ez ziren izango hobeak, alajaina-.

Kontua da ez daudela horren urrun zoritxarreko gizaseme hauen itsasperako anbizioa eta Jeff Bezos eta Elon Musken ilargirako lasterketa. Baina joan nadin mamira. Hain zuzen, horixe da interesatu zaidana eta teoria estetikoarekin paralelismo bat egiteko balio didana. Kopiaren kopia. Filmak hauspotutako leiendak xaxatuta espedizio arriskutsu batean murgiltzen den aberats taldea. Absurdoa ere bada, hondoratutako itsasontziaren bila joan eta zu zeu hondoratzea. Zeu hondoratzea dagoeneko Titanicen epikarik gabe, berrikuntza kutsurik gabe, transatlantikoak gorputzen zuen aurrerabidearen hondarretan jadanik. Gerora pelikularik egingo den ez dakit, baina izatekotan Amazon Video eta Netflixeko dokumental faltsu horietako bat litza-teke. Estreinatuko iraukitutakoa. Hondoratzea zuzean transmititzen ari baita, unez une txikitzen doala bidaiariak bizirik irteteko esperantza, agonia 120 -edo gehiago, zenbat zirenez? - karakteredun saminetako hitz hanpatuen artean luzatzen doala. Artean ere halaxe ez ote gabiltzan, aspaldiko patrioiak errepikatzen, baina gero eta zapalago, brillurik gabeko, plastikozkoago. Azkenean, gehienetan bezala, Marxeek arrazoi.



Ana

Segurtasuna hobetzea, Sader lekualdatu dezatela, eta FEVEko trenbidea behingoz lurperatu dezatela.



Andere

Neguan zehar gazteentzako aktibitateak, eta oro har, ume eta gazteentzako ekintza gehiago.

IRATZE PÉREZ

Udal hauteskundeak.

Hurrengo lau urtetarako, zer da premiazkoa Zorrotzarako?



Ángel


Sader Profersa enpresak Zorrotzatik kanpo behar ditugu lehenbailehen!

Hori bermatu ostean, umeentzako jolasguneak berriitu behar direla uste dut.



Olaia

Gazteentzako topagune-leku gehiago, eta Zazpi Landara heltzeko autobus-maiztasun handiagoa.



Txutxi

FEVE trenbidearen lurperaketa, autobia estaltzea, eta Zorrotza eta San Ignazio lotuko dituen zubia egitea.



*Etxeke berezitasuna; haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



Vía gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

DisenUP



Praktikatu Euskaraz Gurekin!

Euskaraz praktikatu eta bizitzeko hamaika aukera ditugu zuretzat:

Mintzataldeak / Familia-ekintzak / Txangoak /
Mintzodromoak / Lehiaketak / Tailerrak /
Hitzaldiak / Mendi-irteerak / Asteburu-pasak...

EMAN IZENA HEMEN:

Zorrotza AEK

Zalbidea, 7 • 94 441 49 20

zorrotza@aec.eus



iKasi
MiKasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPI LANDA ZORROZGOTTI ILLIHI

Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
📧 sietecampas@gmail.com



CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ILLIHI

Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
📧 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 428 01 36
📠 94 428 01 37
📧 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

VIVE EL EUSKERA DE CERCA

BIZI EUSKARA
HURBILETIK



EUSKALTEGIAK

Ikastaro trinkoak · Cursos intensivos
Etxe ondoan · Cerca de casa
Euskara ikasteko
Azterketak prestatzeko



2 ASTEKO BARNETEGIAK

Euskara-eskolak
Euskaraz bizitzeko
Azterketak prestatzeko



FAMILIA BARNETEGIAK

Euskara ikasteko
Seme-alabekin
euskaraz aritzeko



ONLINE
IKASTAROAk

A1, A2, B1, B2, C1, C2

Informazio gehiago



2023

UDAKO EUSKARA IKASTAROAk
CURSOS DE EUSKERA EN VERANO



EUSKAL GOBIERNA



AEK

673 200 100 / 946 464 000

www.aek.eus

LIZARDI AEK EUSKALTEGIA

Uztailaren 3tik 28ra / del 3 al 28 de julio *

Abuztuaren 1etik 31ra / del 1 al 31 de agosto

Irailaren 4tik 29ra / del 4 al 29 de septiembre

Matrikula zabalik

200€
(*190€)

Perro 1, 1 · 94 416 82 00 · 48005 BILBO · lizardi@aec.eus